


Euskal AEko industria-prezioak % 0,9 jaitsi ziren 2020ko otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta

2019ko otsailarekin alderatuta, industria-prezioak % 0,7 jaitsi ziren

Euskal AEko industria-prezioak % 0,9 jaitsi ziren 2020ko otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Datu horiekin, otsaileko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen duena, -% 0,7tan kokatu zen.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du ezen, 2020ko otsailean, aurreko hilaren aldean prezioetan hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak izan direla *Erauzketa-industriak* eta *Ura* (biak % 2,2ko igoerarekin) eta *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (% 0,8ko igoerarekin). Aitzitik, prezioen hilabete arteko beherakadarik handienak honako sektore hauetan erregistratu dira: *Kokeria eta petrolioaren finntzea* (% 6,9ko jaitsiera), *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 3,2ko jaitsiera) eta *Produktu farmazeutikoak* (% 2,8koa).

Xede ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, *Bitarteko ondasunak* % 0,3 igo dira, eta *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 0,1 egin dute gora, aurreko hilabetearekin alderatuta. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 0,9 igo dira, eta *Kontsumo-*

ondasun ez-iraunkorren prezioak, berriz, % 0,1 jaitsi. Era berean, *Ekipo-ondasunak* % 1,4 jaitsi dira, eta *Energia* % 3,9.

Urte arteko datuei dagokienez (2020ko otsaila 2019koaren gainean), prezioen hazkunderik handienak izan dira *Erauzketa-industrietan* (% 6,4), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 4,7) eta *Produktu informatiko, elektronikoa eta optikoetan* (% 3,6). Alderantziz, prezioetako jaitsierarik handienak izan dira hemen: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 5,8 behera), *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 3,9) eta *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 2,6).

Urte arteko aldirian, xede ekonomikoaren arabera ondasun-talde handien prezioen aldakuntza positiboa izan da *Ekipo-ondasunentzat* (% 1,1 gora) eta *Kontsumo-ondasunentzat* haien osotasunean (% 1,8 gora). Azken horien artean, % 1,9 igo dira *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak, eta % 1,5 hazi dira *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak. Aitzitik, prezioak jaitsi egin dira *Energiaren* sektorean (% 3,8ko jaitsiera) eta *Bitarteko ondasunetan* (% 0,6ko jaitsiera).

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Otsaila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2020ots / 2020urt	2020ots / 2019ots	2020ots / 2019abe
INDIZE OROKORRA	103,2	-0,9	-0,7	-0,8
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	110,3	2,2	6,4	4,5
Manufaktura-industria	104,1	-1,1	-0,6	-1,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	97,5	-0,2	-1,1	0,1
Ura	109,0	2,2	2,6	4,3
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	104,9	0,1	1,8	0,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,1	0,9	1,5	0,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	105,0	-0,1	1,9	0,3
Ekipo-ondasunak	107,5	-1,4	1,1	0,1
Bitarteko ondasunak	102,2	0,3	-0,6	-0,1
Energia	102,1	-3,9	-3,8	-4,1

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: \[servicioprensa@eustat.eus\]\(mailto:servicioprensa@eustat.eus\)](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62